

# DROGETEN ITURRI

Ermua eta Mallabiko aldizkaria. 207. alea. 2012ko abendua



## Ermuko gazteak



saltsa guztietan



# ZINEMAKO IRRIBARREAK

Zure ametsak egi bihurtzen ditugu



## ODONTOLOGIA OROKORRA

### ORTODONTZIA

Invisalign < BERRITASUNA  
Ezkutuko mihi-ortodontzia ikusezina < BERRITASUNA  
Zeramika eta zirkoniozko bracket oso estetikoak < BERRITASUNA

### PERIODONCIA

Diagnosi digital periodontala < BERRITASUNA  
Anlisi mikrobiologiko periodontal eta genetikoak < BERRITASUNA  
Periodontitis-tratamendua kirurgiarik gabe < BERRITASUNA  
LASER diodoa  
Mentuak hortzoietan

### AHO-KIRURGIA

Ateratze zailak eta sustrai-hondarrak  
Azkenaginak ateratzea kirurgiarekin  
Barneko hortzak ateratzea

### INPLANTOLOGIA

Hezur eta hortzoi gabeziarentzako tratamenduak  
Hezur-birsortzea biomaterial bidez < BERRITASUNA  
Hortzoi-birsortzea  
Inplantologia transzigomatikoa < BERRITASUNA  
Hortz finkoak egunean bertan inplanteekin < BERRITASUNA

### PROTESI FINKOAK

Metalezko koroa libreak < BERRITASUNA  
Zirkoniozko koroa puruak < BERRITASUNA  
CAD-CAM koroak (ordenagailuz egindakoak) < BERRITASUNA  
Karillak

### MUGITU DAITEZKEEN PROTESIAK

Oklusioa eta ATM

### OKLUSIOAREN DIAGNOSI DIGITALA < BERRITASUNA

### ZURIKETA LASER bidez saio bakarrean < BERRITASUNA

### ODONTOPIEDIATRIA (PADI)

### ERRADIOLOGIA DIGITALA

### SUDUR-LASAIGARRIA < BERRITASUNA

### MUTUA ETA ASEGUURUAK

GLOBAL CARD, EMESA PREVENCIÓN, MUTUA UNIVERSAL, FRATERNIDAD,  
CARREFOUR LIFE, IMQ, AZKARAN, PREVISORA BILBAINA, SANTA LUCÍA,  
AEGÓN/STONEBRIDGE, OCASO, AVANTSALUD, PADI...

## ZERBITZU BERRIAK

### ETENGABEKO ORDUTEGIA

Astelehenetik ostiralera:

8:00etatik 22:00etara

zapatuetan:

10:00etatik 14:00etara



### LARRIALDIETARAKO TELEFONO BIDEZKO ARRETA

24 orduz  
GALDETU



### GALDETU 2. mediku-iritzia

Unibertsitate entzutetsuetan  
irakasleak gara.  
Ospea duen zentroa gara.



### ETXEZ-ETXEKO ARRETA-ZERBITZUA



Etxeko arreta:  
Pazientea jaso  
eta etxera itzuli  
GALDETU



**IRAZABAL**  
clínica dental

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR  
Tel.: 943 20 85 52 - [www.clinicairazabal.com](http://www.clinicairazabal.com)

Promozio bereziak 2013ko martxoaren 15era arte, kupoi hau aurkeztuz

**%20** Deskontua  
hortz-  
inplanteetan\*

\*Soilik hortz-inplanteetarako

**%10** Deskontua  
larunbatetan  
egindako  
tratamenduetan

LASER bidezko zuriketa  
Hortzetarako arkatx zuritzailea 525 €  
Higienea .....  
BESTELAKO PROMOZIOAK: GALDETU

**ARGITARATZAILEA:**

Euskal Birusa  
Elkarte Kulturala.

**HELBIDEA:**

Erdikokale 2, 1. (Elexoste)  
247 posta-kutxa  
943 17 93 50.  
drogeten@gmail.com  
www.euskalbirusa.org

**ERREDAKZIO TALDEA:**

Alazne Aiestaran, Igone Amesti, Ibaia Azagirre, Estibalitz González, Asier Ibaibarriaga, Ane Saénz eta Dorleta Vidal.

**KOORDINAZIOA****ETA MAKETAZIOA:**

Dorleta Vidal.

**HIZKUNTZ ARDURADUNA:**

Alazne Aiestaran.

**AZALEKO ARGAZKIA:**

Dorleta Vidal.

**LAGUNTZAILEAK:**

Javi Barrutia, Leire Elustondo, Ana Gómez, Fede Iturriagagoitia, Patxi López, Pello Mugarza, Valentín Mugarza eta Izara Rivas.

**ARGAZKIAK:**

Igone Amesti, Ibaia Azagirre, Leire Elustondo, Estibalitz González, Asier Ibaibarriaga, Valentín Mugarza, Storbais, Izara Rivas eta Dorleta Vidal.

**PUBLIZITATEA:**

688 63 28 76.

**INPRIMATEGIA:**

Gertu Koop. (Oñati).

**BANAKETA:**

Nora Mateos  
eta Olatz Loiola.

**TIRADA:**

2.300 ale.

**ISSN:**

11 33-973X.

**LEGE GORDAILUA:**

SS-213/94.

*Drogeteniturrrik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako iritzien erantzukizunik.*

# Bertoko hegaztiak

...Fede Iturriagagoitiak batuta

## PINU KASKABELTZA *Carbonero garrapinos. Parus ater*



Errez antzematen da burura begiratze hutsarekin: ikatzaren moduko luma beltzen artean, zuri baino zuria-  
go bere bi masailak eta kokotea. Pinura jotzen du,  
honen arbola-gerrian edo pinu-bolen barruko  
aldean gordetzen diren kokotxo eta txindurrien  
zelatan beti. Harra arduratzen da emea elika-  
tzeaz honek inkubatzen duen sasoiari, 6-8 arrau-  
tza berotzeko kargua ez da-eta ardura makala!

Arerioaren bat hurreratu ezkerre, emea arrautzen gainean mantentzen da azken unera arte, txistuka hegan irteten duen arte. Gure artean txori ezaguna eta ugaria da, pixkat baso alderantz egin ezkerre endemas. Lehen herrirago ibiltzen zen, ze neuk ere mutikotan 'Lomiñoneko' etxearen horma-zulo baten ikusia diot habia.

## Hilabete honetan...

MUSIKA TALDE-TXOKO ....4 Storbais	BOTEPRONTOAN ..... 16 Nerea Goenaga
ELKARRIZKETA .....5-7 Amaia Arrondo	KIROLZALE ..... 17 Ermuko Futbol Eskola
MALLABIAN ZER? .....8-9 Birziklatzearen Aldeko Taldea	IRITZIA ..... 18 Etxegabetzeak (Ana Gómez)
ERREPORTAJEA ..... 10-11 Merkatu Plazaren etorkizuna	SALEROSKETAK ..... 19 Saldu, erosi edo agurtu
MOTZEAN..... 12-14 Merkatarien Elkarteko kanpainak	ANTZINAKOAK.....20 Ermuko eta Mallabiko argazkiak
ERMUAN ZER? ..... 15 Libe Garitagoitia eta Leire Tejada	KALEKO INKESTA ..... 21 Ermuko eta Mallabiko jendearen iritziaz
	AGENDA ..... 22

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA  
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

# Storbais

**Herriko musika taldeen aitzindari da Storbais, aurten 20 urte bete baititu, eta mailetan taldekide ezberdinak, hamaika kontzertu eta mila bizipen dituzte. Euren estilo metaleroa mantenduz bidea egiten jarraitzen dute oraindik ere, patxadaz, eta urte emankorrenen emaitzak 2 disko eta VHS batean jasoak daude.**

## - Noiz sortu zenuten taldea?

Gure taldea 1992ko ekainean jaio zen, martxan zeuden bi musika talde batu ostean. Batek, 'Todos al suelo', hardcore-punka jorratzen zuen eta besteak, 'Phobia', trash metalean aritzen zen. Bi talde horiek, herriko hainbat musika taldek grabatu zuten 'Rock the pueblo' maketan parte hartu zuten.

## - Zergatik 'Storbais'?

Gizarteari kalte egiten dion jende guztiari zuzenduta dago gure izena: kasta politikoa, bankuak, multinazionalak, esplotatzaileak, armada, eliza eta munduan dauden bestelako muntaia erlijiosoak (gizarte-lan garrantzitsuak egiten duten erlijiosoak izan ezik) eta abar.

## - Zeri buruz hitz egiten dute zuen abestiek?

Alde batetik salaketa soziala egiten dugu. Beste abesti batzuetan irakurritako liburuetan edo esperientzia pertsonaletan oinarritzen gara, ametsak eta nahiak, barne-begirada duten pentsamenduak, bai munduari buruz zein inguruan ditugun gizakiei eta geure buruei buruz.

## - Nortzuk osatzen duzue taldea?

Gaur egun Txino, Barru, Moshky, Fory eta Xabi gara. Fory eta Barru hasieratik daude taldean, Txino 94an hasi zen eta Moshkyk eta Xabik hainbat urte darabate gurekin. Gainera, XNI 10 urte inguru egon zen taldean, Pachón eta Martin hasierako urteetan egon ziren... Txanprax, Javi eta Alfredo ere gurekin izan dira urte batzuetan zehar eta baita Alber ere.

## - 20 urteko ibilbidean, zenbat lokaletan entsetatu duzue?

Eitzagako negutegian egon ginen hainbat urtez eta jarraian lagun baten garajea entsetatzen hasi ginen, Trabakuan. Handik Eibarko Legarreko lokaletara joan ginen eta azkenik eta behingoz Ermuko Betiondoko lokaletan. Urte larregi itxaron behar izan dugu herrian musika taldeentzako lokalak izan arte!

## - Eta hasi zinetenetik, aldaketarik egon da zuen musika estiloan?

Argi dago bilakaera bat egon dela gure teknikan eta guregan eragina duten musika joeretan. Hasieran baino 'metaleroak' garela esango nuke, baina gutxi gora behera hasierako estiloari eutsi diogu.

## - 2012an zuen 20. urteurrena bete duzue. Zer ikusten duzue atzera begiratzean?

Bizipen, anekdota eta esperientzia mordoa... gehienak oso atsegin eta aberasgarriak.

## - Ospakizun berezirik egin duzue?

Kontzertua egiteko asmoa genuen. Kontzertuaz gain, ez dakit zer gehiago egin genezakeen...

## - Eta zein da taldeak eman duen kontzerturik onena?



Taldekide bakoitzak bere iritzia izango du baina nik (Javi Barrutia) Aritzmendi pilotalekuan Reincidentes eta hainbat musika taldeekin batera egindako emaldia dut gogoan, hala nola Elorriokoa S.A.rekin, Leitzakoak, Santixauetakoak, Cuéllarrekoak, Alhama de Murciaok, Ávilan eman genuen lehen kontzertua, non entzuleak abeslaria baino gehiago entzuten ziren. Ez dago lekurik gogoan ditugun guztiak aipatzeko!

## - Zein egoeratan dago taldea egun?

Entsetatzeko nahia baino ez dugu aspaldidanik, noizean behin jo eta etorkizunean zerbait grabatu... Taldekide bat Ermutik kanpo bizi da aspaldidanik, beste batek seme-alabak ditu eta gainerako taldekideek, beste talde batzuetan ere jotzen dute. Zer esango dizut ba!

## - Non eman zenuten azken kontzertua eta noizko hurrengoa?

Azkena Infreñu tabernaren urteurrenean eman genuen eta hurrengorik ez dago oraindik... ez daukagu presarik!

## - Zenbat disko kaleratu dituzue?

3 grabazio ditugu eta edizioei dago kienez, 2 disko konpaktu eta VHS bat daukagu. Aspaldikoak dira, baina lortu nahi dutenek gurekin harremanetan jarri baino ez dute egin behar.

## - Zuekin harremanetan jartzeko...

Telefonoz egin daiteke, 607273731 zenbakian edo Internet bidez: storbais@gmail.com helbide elektronikoan, www.myspace.com/storbais webgunean edo taldearen Facebook orrian.

**Yoga eskola**

**Sanatana  
Dharma**

- \* Osteopatia
- \* Bertebrologia
- \* Anginak sendatzeko masajea...

San Roke 24, behea  
943748593 · 685722131 (Idoia)

**Zubiaurre 14**  
**Telef. 943 17 28 88**  
**48260 ERMUA**

**EGUZKI LORE**



Amaia Arrondo bere liburuaren aurkezpenean

Amaia Arrondo, idazlea:

**“Planeta saria irabaziko dudala esaten diot beti amari, baina...”**

Amaia Arrondo ermuarrak 17 urte ditu eta batxilergoko 2. ikasturtean dago Eibarko La Salle ikastetxean. Gazte arrunta izango litzateke liburu bat idatzi eta argitaratu izan ez balu. ‘Superando los sueños’ liburuaren lehen edizioa 100 alekoa izan zen eta dagoeneko beste 100 ale gehiago eskatu behar izan ditu. Abenduaren 14an liburuaren aurkeztu zuen Lobianon eta 40 lagun baino gehiago izan zituen ondoan. Amaia eta Eibarko Koro Gaztearen abestiak entzuteko aukera izan zuten bertaratutakoek.

- Zer kontaktzen du zure lehen liburu honek?

Liburuaren istorioa Miami gertatzen da eta neska baten bizitzari buruzkoa da. Neska horrek dantza gustuko du eta bere gorabeheren berri ematen du. Ez bakarrik dantzaren inguruko kontuak, amodio kontuak, lagunak eta horrelakoei buruzkoak ere kontaktzen dira.

- Zenbat urte ditu zure liburuko protagonistak?

16 edo 17, baina fikzioa da. Ez dauka zerikusirik nire bizitzarekin.

- Nondik atera zenuen orduan inspirazioa?

Kiroldegian jazz-fusion dantza ikastaroa egiten hasi ginen lagun talde bat, ostiraletan. Klasean gertatutakoak koaderno batean idazten hasi nintzen, denbora pasatzen utzi eta berriro irakurtzean lagunekin barre egiteko.

- Eta noiz bihurtu zen liburu zure 'egunkari' hori?

Udan Nafarroara joaten naiz gurasoekin eta dantza- eskolan jasotakoa ordenagailuz idazten hasi nintzen. Gehiegiz idatzi nuela iruditu zitzaidan eta pertsoniak asmatzen hasi nintzen. 40 orri inguru idatzi nituen, liburu forma eman eta bukatu arte jarraitzea erabaki nuen.

- Liburu bukatu arte, beraz, ez zenekien amaiera zein izango zen?



Ez, liburu forma ematen hasi nintzenean amaiera erabakita nuen. Erdikoa falta zitzaidan...!

- Eta zaila egin zitzaizun hutsune hori betetzea?

Bai, liburu 13 urterekin idazten hasi nintzen eta 14rekin bukatu nuen. Kontua da 'Fundació Jordi Sierra i Fabra' lehiaketara aurkeztu nahi nuela eta gutxieneko orri kopurua 100ekoa zela. 14 urterekin moldaketa egiten hasi nintzen eta 15 urterekin bukatu nuen. Azkenean, konturatu orduko, 190 orri baino gehiago nituen!

- Liburu idazteko, norbaiten aholkuak jaso dituzu?

Koadernoan idazten hasi nintzenean lagun bati eraku-

tsi nion eta oso ondo zegoela esan zidan, jarraitzeko. Gero nire amari erakutsi nion eta ortografia akatsak zuzendu zizkidan. Batzuetan nola jarraitu ere galdetzen nion, baina berak esandakori ezetz esaten nion beti. "Ba ez galdetu!", esaten zidan amak.

- Eta nork bultzatu zintuen liburu kaleratzera?

Lehen aipatutako lehiaketa hori ez nuen irabazi baina, bukatutakoan, nire liburuaren balorazioa bidali zidaten etxera gutun baten bidez: kalifikazioa, nola ikusten zuten, norentzat zen aproposa... Puntuazio altutxo ateratu nuela ikusi nuen eta amari komentatu nion. Nire familiariaz gain, beraz, gutun horrek animatu ninduen.

- Eta hortik aurrera zeintzuk pausu eman zenituen?

Amak proposatu zidan Internet bidez argitaletxeren bati iritzia eskatzea eta argi-

taletxe pare batekin jarri ginen harremanetan. Batek, liburu irakurri barik, argitaratzeko esan zidan. Baina etxean editore baten iritzia nahi genuen, ea argitaratzeko moduko liburu zen jakin nahi genuen. Bigarrenean, Éride taldearen 'Nuevos escritores' argitaletxean, nire liburu ira- kurri zuten eta nire adineko jendearentzako erakargarria izan zitekeela esan zidaten.

- Liburuan aldaketarik egin behar izan zenuen?

Liburu prestatzen hasi zirenean, lehen bertsoia bidali zidaten, akatsak zuzentzeko. Ortografia akatsez gain, esaldi eta paragrafo batzuk aldatu behar izan nituen, bere lekuan ez zeudelako. Jarraian liburu guztiak bidali zizkiguten etxera eta saltzen saiatu gara.

- Portadaren diseinua argitaletxeak egin zuen?

Ez, guk nahi genuena egiteko askatasun osoa eman

**"Argitaletxeok askatasun osoa eman didate eta lagun batzuk portada egiten lagundu didate"**



ziguten. Liburuaren portadan agertzen diren hankak nire lagun batenak dira, Jone Ojearenak, idazten jarraitzeko esaten zidan neska-karenak. Argazkia, berriz, bere neba txikiak atera zuen, Aitor Ojeak.

**- Herri osoan zabaldu da liburu honen berri, ezta?**

Hasieran nire klasekoek bakarrik izan zuten honen berri. Ermuan nire lagunek zekiten eta baita amaren lagunek ere. Amaren lagun batek Facebook-en ipini zuen liburuaren portada, eta bat-batean jende guztia eska-

tzen hasi zen, hala nola herriko liburu-dendek ere. Hainbat komunikabidetatik deitu zidaten...

**- Zer esaten dizu jendeak liburu irakurri eta gero? Zer nolako kritikak jaso dituzu?**

Asko gustatu zaiela esaten didate eskolakoek, negar asko egiten dutela eta ea bigarren zatia idazteko asmoa dudana. Eta ez, ez dut bigarren zatirik idatziko!

**- Nola bizi dute etxekoak hau guztia?**

Amak esaten du larregizkoa dela, betidanik idatzi dudala eta horregatik honek ez duela horrenbeste garrantzirik.

**- Liburu asko saldu dituzu?**

Bai, hasieran nik saltzen nituen eta orain, esan bezala, Xiripot eta Maribel liburu-dendetan eskuratu daiteke (11'70 eurotan). Baina nire asmoa ez da aberastea eta dagoeneko konturatu naiz honen ezin zarela aberastu.

**- Zerbaitetan zabilta gaur egun?**

Beste liburu bat idatzi dut, lehiaketa berberera aurkeztu dut eta otsailean emango didate emaitza. Hirugarren liburu bat ere idazten ari naiz, nire eskolan gertatzen diren gauzei buruzkoa. Zailagoa egiten ari zait, aurreneko biak fikziozkoak zirelako, baina kasu honetan pertsonaiak benetakoak dira eta jendea askotan ez dago ados nik idazten dudanarekin.

**- Zure lagunek idazteko duzun zaletasuna ulertzen dute?**

Beno, ez dakit. DBHko lehen egunean, iaz, liburu idatzi nuela esan nuen eta jendea burla egiten hasi zen. Orain, liburu irakurri eta gero, bigarren zatia eskatzen didate.

**- Idazteko ordutegiren bat ipintzen duzu?**

Ikasturtean zehar ez, ahal dudanean idazten dut; udan, berriz, ordutegi bat ipini behar diot nire buruari. Lehiaketetara aurkeztu behar ditudan liburuak idatzi behar ditut eta bestela ez dit denborarik ematen.

**- Euskaraz idazteko asmorik baduzu?**

Euskarazko ipuina idazten hasi nintzen, baina ez naiz batera ona. Euskara gustuko dut eta beharbada lagun batekin batera zerbait idazten hasiko naiz. Bakarrik ezin dut.


**- Irakurtzea gustuko duzu?**

Orain bai, baina aukeratzekotan idaztea nahiago dut. Maitasunezko, beldurrezko eta abenturazko liburuak gustuko ditut. Nire inguruko gazte gehienek eskolan agintzen dizkiguten liburuak baino ez dituzte irakurtzen.

**- Zer ikasiko duzu?**

Kazetaritza ikasi nahi nuen, baina ikasgaiak ikusi ditut eta ez zaizkit gustatzen. Arte Grafikoko modulua egingo dut beharbada. Bartzelonan idazleentzako 3 urteko modulua dago, baina amak esaten dit beste zerbait ikasi behar dudala, idazle izatea ez dela ogibide bat. Nik idazle izan nahi dut eta Planeta saria irabaziko dudala esaten diot beti, baina... Azkenean beste zerbait ikasi beharko dut.

Dorleta Vidal



HOLLY PREPPY

## LA COMPAÑÍA FANTÁSTICA

VERO MODA

# El armario de Doan

LUNATIC

ANGELEYE

MOLLY BRACKEN

## ...Laster Ermuan

## BAT, Birziklatzearen Aldeko Taldea:

# “Birziklatzen ez dauenak, birziklatzie ez dala erosue pentsatzen dau”

### - Zer da BAT?

Birziklatzearen Aldeko Taldea. Herritar talde bat gara, gai honen inguruko kezkei buruz hausnartzeko elkar-tzen garena.

### - Noiz eta nola sortu zan?

Irailla bueltan Udaleko gonbidapen zuzena jaso gendun ekimen honetan parte hartzeko. Gero, herrixen deialdi zabala egin zan parte hartzie bultzatzeko asmoz. Guztire batzarretan, hamar lagun inguru elkartzen gara.

### - Zer helburu daukeuzue?

Birziklatze eta berrerabilpenaren alde gagozen neurri-xen, gure helburue hau herri-xen sustatzie da. Baitte kontsumo ohituren inguruko hausnarketie egin, berau zabaltzie eta proposamenak jasotzie be.

### - Mallabitarrek birziklatze-ko ohiturarik badaukie?

Mallabitarren ehuneko zenbatek birziklatzen daben estimaziñorik ez daukagu; bai oster, mankomunitate guztixen jasotzen dien hondakinen %25 bakarrik jasotzen dala sailkatute. Birziklatzian ohiturie, etxeko ohitura dala uste dogu; honek lotura zuzena dauke bako-txan kontzientzia eta sentzibilizaziñuakin.

### - Zer egin leike birziklatzea sustatzeko?

Honetarako, beharrezkue ikusten dogu herritarrei informaziñue emotie. Hone-taz gain, aurrez aipatu dogun moduen, birziklatzie etxeko ohitura dan neurri-xen, gaztetxuek be gai honetaz kontzientziatzie eta txikittetik birziklatze eta berrerabilpen balorietan heztie ezinbestekotzat jotzen dogu.



### - Zein uste dozue dala ez birziklatziaren arrazoie?

Alde batetik informaziño falta dauela uste dogu; jendiek ez daki zer-zelan birziklatzen dan, ez eta horrek ingurumenien daukezan onurak eta garrantzixe be. Bestetik, birziklatzen ez dauenak, birziklatzie ez dala erosue pentsatzen dau. Ondorioz, ohitura eta komodidade horregaittik bardin jarraitzen dabe.

### - Bakotxagandik hasitte, zer egin geinke arazoa konpontzeko?

Lehenik eta behin, kontsumo ohiturie aldatzie, ezinbestekue dana bakarrik erositte. Ondoren, gauzei ahalik eta probetxu gehixen ataratzie. Eta azkenik, kontsumo horren hondakiñiek birziklatzie. Honetaz gain, gaixe gure inguruen, etxeko eta lagunnen artien zabaltzie be gure esku dau.

### - Zer ekimen daukeuzue martxan?

Oin arte gauza txikixekin hasi gara. Adibidez, iraillien egin zan duathloiko bazkari-xen, organikue batzeko ontzixek ipiñi genduzen. Gaztaiñerren barriz, edalontzi berre-rabilgarrixek erabiltzie sustatu gendun Orraittition bitartez. Momentu honetan, birziklatze eta berrerabilpenan informaziñue jasotzen daben egutegie bat prestatzen gabiz herritarron artien banatu eta gaiaz sentzibilizatzeko asmoz.

### - Edonok hartu leike parte talde honetan?

Bai noski! Talde zabala gara, eta hemendik danoi gonbidapena luzatzen deutzuegu taldera batzeko.

### - Zuekin harremanetan jartzeko?

Hilleko bigarren astelehenetan batzen gara arratsaldeko zazpitan Kultur Etxien. Bestetik, bat.mallabia@hotmail.com helbidien be jarri leike gugaz kontaktuen.

Igone Amesti  
eta Ibaia Azagirre



**IZOTZ**  
IZOZTUAK

ERMUA  
Merkatua  
54-55 postuak  
943174101

ARRASATE  
Merkatua  
943770598

- Sagardotegiak, ezkontzak, jaiotzak, Errioxa, elurra, bidaia turistikoak...  
- Profesionalak gara lantegietara, eskoletara eta kirol taldeak eramaten.

**ALCONADA**  
autobusak  
610 28 39 39  
busalconada@gmail.com

Preziorik onenean egingo dizugu aurrekontua

Eskaintza bereziak!

**ILEAPAINDEGIA**

*Izaskun*

Goienkale, 9 (Plaza San Martin)  
48260 Ermua Bizkaia  
Tel. 943.17 66 90

**ILEAPAINDEGIA**



## ZENGOTITATIK HERRIRE DATORREN UR HODITERIAREN ZATI BAT KONPONDU EGINGO DABE

Zengoitatik Betzuenerako bide zatixe konpontzen ebizela, bertan dauen ur kaptaziotik herrire datorren hodi zati bat apurtu egin zan. Hoditerixa hau oso egoera txarrien zauela ikusitxe, aldatzie erabaki dau Udalak. Guztire 500 metro inguru die; honetatik zati bat obrekin batera egin zan eta falta dana urte hasieran egitteko asmue daukie. Obra honek Zengotitarrei inolako kalterik ez deusela eragingo baieztatu dau Udalak, baso eta landa zati bat zeharkatuko dabelako soilik.

## KONPOSTAIA KANPAINA

Ekaineko Ohiko Bilkuran erabaki zan legez, Udala birziklatzearen aldeko pausuek emoten hasi da. Mallabixen jende askok konposta egitteko aukera daukela ikusitxe, eta honekin hondakiñen %40 zaborrontzietatik kendu ahalko litzatekela jankinde, Udalak konpostaiaren aldeko kanpaina hasi dau Debabarrenako Mankomunitatearen laguntzaz. Abendu hasieran horren aurkezpen ekitaldixe egin zan herrixen, gure ebanak apuntatu eta konpostagailue etxera eroateko. Hemendik aurrera, etxien lur zatiren bat daukenak gutune jasoko dau informaziñuakin, eta telefono dei bat nahikue izengo da izena emoteko. Honei konpostadorie erungo jakue eta jarraipena egin urtebeten zisher.

## ESKOLAKO SARRERA ETA HANBREKO ZABORRONTZIXEN INGURUE KONPONDUKO DITTUE

Eskolako sarrerako bidie egoera eskasien dauela eta, gabonetako oporrak aprobetxauko dittue honek lanok betetze-ko. Frontoi paretik gora doien bidie eskolarako sarrera bakarra da, eta putzuz beteta egoten da sarrirten. Horregaittik konpontzie erabaki dau Udalak. Kanpoko enpresa batek egingo dittu honek lanok. Hanbreko zaborrontzien ingurue be putzuz beteta eta egoera txarrien dau zaborra botatzera doiezenentzat. Udaleko langiliek egokittuko dabe ingurue.

## BASERRITIK KALERA

Baserritik kalera ekimenien parte hartzeko epie urtarrille amaittu arte egongo da zabalik. Gero interesatu danekin bilduko da Udala, euren produktuen barri emango dauen katalogo bat osatu ahal izateko. Kontsumitzailiek produktorien barri izetie da helburue, zeozer falta dogunien telefono dei bategaz lortzeko aukerie emotie. Oizegin.com on lineko salmenta be martxan dau, eta Mallabiko honek, horren osagarrixe izen gure dau. Baserritar bakotxak zer saltzen dauen jakinde, etxetik bertatik be saltzeko aukerie izen daixen. Katalogue hasiera baten, herrixen bakarrik zabalduko dan arren, kanpora aurkeztie be ez da baztertzen.

## G A B O N A K M A L L A B I X E N

### Abenduak 22 (larunbata)

· Amama Inaxiren ipuina.  
Mallabia I Kirol Etxean, 19:00etan  
(Jasokunde eta Mendibil abesbatzak eta dantzariak).

### Abenduak 23 (igandea)

· Baserriz baserri gabon kantak kantatzen (Jasokunde).

### Abenduak 24 (astelehena)

· Olentzero Mallabira dator! Plazan, 19:00etan  
(Izar Gorri Kultur Elkartea).

### Abenduak 26 eta 27 (asteazken eta osteguna)

· Zinea. Kultur Etxean, 18:30ean (Futbito taldea).

### Abenduak 28 (ostirala)

· Haur parkea. Mallabia I Kirol Etxean,  
11:30-13:30 / 16:30-19:30.  
· Hitzaldia. Harrera. Preso eta errefuxatuak.  
Izar Gorri Kultur Elkartean.

### Abenduak 30 (domeka)

· Bideo emanaldia: 'Barrura Begiratzeko Leihoak'.  
Herrikoko sozidatean 19:00ean.

### Abenduak 31 (astelehena)

· Trikipoteoa. 19:00ean tabernetan (Orraittio).

### Urtarrilak 4 (barikue)

· Bideo emanaldixe: 'Gartxot'.  
Herrikoko sozidadien, 19:00etan.

**ikema**  
Zure umeen arropa denda

Merkatu plaza · Ermua

**MUGA**  **KILOK**

San Pelaio 4A behe  
Telefona: 17 64 77  
ERMUA

**ARRIETA CORDEVI**

Elektratresnak,  
telebistak, bideoak,  
musika aparatuak...

...prezio eta kalitate  
ezin hobean.

VI. Centenario Kalea, 5 ERMUA

Askotan, **konponketa** erantzun egokiena da



**AUTO-REPARACIONES  
AREITIO, S.L.**

634 errepide nazionala - 69,5 km.a Areitio Gaina 15 · 48269 - Mallabia  
Bulegoa: 943 17 51 00 / Tailerra: 943 17 08 06 / Fax: 943 17 20 15

www.areiotor.com

administracion@areiotor.com / areiotor@areiotor.com

**MALLABIKO  
Herriko  
taberna**



Eguneko platera (3€)  
menua bokatak,  
plater konbinatuak,  
pintxoak, kazolak,  
arraina eta txuleta  
parrillan (enkarguz)...

**943 174 952**

(asteartetan itxita)

# Merkatu Plazaren etorkizuna zalantzan

27 urte bete dira Ermuko Merkatu Plaza zabaldu zenetik, 1985ean. Garai politak bizi izan ditu, postuz gainezka eta jendez lepo, baina azken urteotan jarduera komertziala gutxitzen joan da. Eraikinaren etorkizunaren inguruko zurrumurruak nonahi entzun daitezke eta horiek argitzeko helburuarekin Merkatu Plazako merkatariekin eta Jose Luis Araujo zinegotziarekin bildu gara.

**M**erkatu Plazako dendarien elkarreko Mayte Morenok, Maite Gorrotxategik eta Asier Bouzok Merkatu Plazaren modernizazioaren beharra onartu zuten 2010ean, eraikinak 25 urte bete zituenean. Egin behar zituzten aldaketen berri zabaldu zuten Drogeteniturrin: goiko postuak beheko solairura bajatu eta fatxadak aldaketa txikiak egin, hain zuzen ere. Baina bi urte igaro dira eta Merkatu Plazak bere horretan jarraitzen du, merkatariek 'ihes' egiten jarraitzen duten bitartean. Zer gertatu da ordutik gaur egun arte?

Merkatariek aurkeztutako proiektu honetan, "postuak jaitsi eta beheko solairuko zutabetaraino ateratzea proposatzen zuten 5 edo 6 merkatarik, eta dirua ipin-

*tzeko prest zeuden* -dio Jose Luis Araujo zinegotziak-. *Proposamena ez zitzaigun estetikoki asko gustatzen eta gainera, aldaketa hori adabakia baino ez ote zen pentsatu genuen*".

Hala ere, merkatariek ez zuten horren berri jaso: *"Udalak ez zigun esan ez zuela gure proiektua nahi eta, are gehiago, aurre-proiektu bat egiteko eskatu ziguten, gure poltsikotik ordaindu behar izan genuena. Dirutza izan zen eta bai, beharbada proposamena adabakia zen, baina gure ahalbideen barruan jokatu genuen, ez baikenion Udalari inongo ekarpen ekonomikorik eskatzen. Gure ilusioekin jokatu zuten gure proiektuari hasieratik ezetz esan beharrean*".

Udalak, bitartean, bere bideari ekin zion eta



2010ean, 25 urteko lizentziak agortu zirenean, 5 urteko luzapena ematea erabaki zuen, "merkataritza urtebete edo bi urte geratzen baitzitzaien erretiroa hartu ahal izateko" -dio Araujok-. *Bost urteko epe horretan plazaren modernizatorako eta erabilerraztasuna hobetzeko eman beharreko pausuak argitzea espero genuen*". Horretarako, lkei Aholkularitza kontratatu zuen Udalak eta, merkatu-ikerketak bukatutakoan, 3 proiektu aurkeztu zituen.

## 1.300.000 euro

Ikeik aurkeztutako hiru proiektu horien artean garestienak (ia 3 milioi euro), Merkatu Plaza goitik behera zaharberritzea proposatzen

zuen. Bigarren proiektuak muellea eta beheko solairua zaharberritzea zuen helburu, muellean merkataritza-zentroren bat ipinita. Eta azken proposamenak, berriz, beheko solairua aldatzea proposatzen zuen: fatxadak kristala ipini, erakusleihoak ikusi ahal izateko paseotxoak... *"Oso proiektu polita zen eta gainera, herriko enpresari bat muelle osoa hartzeko prest zegoen, janariarekin zerikusia zuen negozio berritzailea martxan jartzeko asmoarekin*", dio Jose Luisek.

Azken proiektu horrek milioi bat eta 300.000 euroko kostua zuen eta Udala milioi bat ipintzeko prest zegoen. *"Gainontzekoa merkatariek ipini behar zuten eta horre-*

**"Udalak astiro eta berandu jokatu du gai honekin"**

KRABI

Ileapaindegia  
Estetika

Tel: 943 03 17 56

Diputazio, 5

ERMUA

MENDIOLA

Restaurante - Jatetxea

Erdikokale, 19  
Telefona 943 17 22 43

48260 ERMUA  
(Bizkaia)

tarako erraztasunak emateko asmoa genuen”, dio Araukok. Merkatariek, berriz, ez zietela erraztasunik ematen aitortzen dute: “Obraz gain, bakoitzak beharrezko tresneria erosi behar genuen. Merkataritza-sozietatea ere sortu behar genuen, Merkatu Plazako kudeaketa gure gain hartzeko. Diru asko ipini behar genuen gurea inoiz izango ez zen eraikina aurrera eramateko, epe ertainean plazarekin zer gertatu zen jakin barik”.

### Uda tartean

Hala ere, proposamen horrek aurrera egingo zuela zirudien, aurtengo uztailean egindako bileran Udalak eta 10 merkatarik baietza eman eta gero. Baina udatik bueltan, “muellean negozioa ipintzeko asmoa zuen merkatariek bertan behera laga behar izan zuen proiektua arazo pertsonalak zirela medio -dio Araujok-. Jarraian, merkatarien deia ja-

so genuen: Udan ondo pentsatu eta dirurik ez inbertitzea pentsatu zuten, arrisku handia zelako eta, batez ere, obrak asko luzatuko zirelako”.

Baina hori ez da arrazo bakarra. Merkatu Plazako dendariek Udalaren arduragabekeria salatzen dute, utzikeria, konpromiso eta interes falta. “Udalak astiro eta berandu jokatu du gai honekin. Duela 8 urte hasi ginen Merkatu Plazaren etorkizunaz galdetzen, gure lanpostuen etorkizunaz finen, baina ez ziguten ezer esaten. Inbertitzaile handi baten zain zegoen eta agertu denean hasi da pausuak ematen. Baina berandu da jada, gure bizimodua ateratzeko beste aukera batzuk bilatu behar izan ditugu”, aitortzen dute merkatariek.

Araujok merkatarien ezinegona ulertzen du eta onartzen du denbora pasatzen joan dela “baina honelako prozesuak luzeak dira adminis-

## “Bi urte t’erdi falta dira lizentziak agortzeko eta erabakia ez dago Udalaren esku bakarrik”

trazioa tartean dagoelako, diru asko zen, obren lehiaketak eta exekuzioak denbora eskatzen dute... administrazio kontuak astiro doaz beti”.

Era berean, inpotentzia aipatzen dute merkatariek, erantzunak lortzeko zailtasun eta atzerapenak. “Gutxitan etorri izan dira guregana”, diote merkatariek baina Araujok, berriz, merkatariekin bilera dezente egin dituztela azpimarratzen du: “Bai Ikeiko ardurdunak, Ramiro Garciak, zein Udala eta Merkatu Plazako merkatarien bitarteko Jesus Portugalek. Eta horren kronologia badugu. Tratua, nire ustez, aparta izan da”.

### 2015ean ikusi behar

Mayte urdaitegiak eta Asier eta Lazkano harategiek kalean ipiniko dituzte euren negozioak laster eta pena handiarekin bizi dute prozesu hori. Betiko bezeroak galdu, lankideak, familia txikia osatzen zuten. Baina ez dute beste irtenbiderik ikusten. “Hau modernizatzeko beharra zegoen eta ez da ezer egin. Izan ere, osasun-ikuskapenak pasatzeko traba mordoa ipintzen zizkiguten eta ezin genuen horrela jarraitu”, diote.

Halere, kalera irteteko bidea ere ez da erraza izan. “Ermuan lokalak oso garestiak dira eta negozio berriak martxan ipintzeko dagoen

udal araudia neurritz kanpoko da. Ez dakigu Udalak herriko komertzioen egoera ezagutzen duen, baina penagarria da. Horrela jarraitzen badu, bi urtetan denda askok itxiko dute eta Ermua lo-hiria bihurtuko da”.

Udala ere etorkizunera begira dago: “Ez dakigu zein den Merkatu Plazaren etorkizuna. Bi urte t’erdi falta dira oraindik lizentziak agortzeko eta erabakia ez dago Udalaren esku bakarrik, gobernu taldeko gaitzetzeko alderdi politikoei egoera zein den azaldu diegulako. Interesa duen merkataritza talde txoa jarraitzeko prest balego edo proposamen berriak jasoko bagenu, aurrera jarraituko genuke; merkataritza gutxi gertatzen badira, jakina, ezin izango zaie gastuei aurre egin”, dio Araujok.

Merkatu Plaza leku ezin hobean dago eta aisialdi edo kulturarekin lotutako zereginetara dedikatu daitekeela dio Araujok. “Batabatean bururutzen zaizkidan gauzak dira. Baina gure asmoa ez da sekula izan Merkatua ixtea. Gaur egun Hiri Antolaketarako Plan Orokorra lantzen ari gara eta eraikin horretan beste zerbait egiteko asmoa izango bagenu, Plan berriari agertuko litzateke. Eta ez dago ezer”.

Dorleta Vidal



Euskara eta euskaltegia  
egin biak zureak

UDAL EUSKALTEGIA

Teresa Murga, 2. solairua  
Tel. 943 17 09 25

san pelayo  
clínica dental hortz klinika

San Pelayo 5, 1º  
Ermua (Bizkaia)

Olatz García Arregui

943 17 04 04

ONAINDIA  
HARATEGIA

Etxean egindako  
odoloste eta txorizoak

Kantabria zeharbidea 1  
48260 - ERMUA

Tel. 943 10 85 44  
Mug. 678 64 85 41

## URTARRILAREN 12AN EGINGO DEN MANIFESTAZIORAKO AUTOBUSAK ERMUTIK



Giza eskubideak, irtenbidea eta bakea aldarrikatzeko herri mobilizazioa deitu du Herrira mugimenduak. Urtarrilaren 12an burutuko da manifestazioa, larunbata, 17:30ean Bilboko Casillatik irtenda. Ermuko Herri Bilguneak autobusak ipiniko ditu eta parte hartzeko asmoa dutenek ohiko lekuetan erosi beharko dute txartela, 5,50 euroren truke. Informazio gehiago [www.urtarrilak12.com](http://www.urtarrilak12.com) webgunean.

## INAUTERIETAKO KARTEL LEHIAKETA OTSAILAREN 1EAN BUKATUKO DA

Lehiaketan parte hartu nahi dutenek Lobianon entregatu beharko dituzte lanak. Gaia eta teknika librea da eta proposamenek 42x30 eta 48x33 zm arteko neurriak izan beharko dituzte. Irabazleak 450 euroko saria jasoko du (oinarriak Ermuko Udaleko webgunean).

## Ermuko Merkataritza eta Ostalarien elkarteak herriko merkataritzaren aldeko kanpainak abiatu ditu

Abenduan Ermuko Merkataritza eta Ostalarien 'Ermua txartela' rekin ordaintzen duten bezeroek hainbat sari lortu ditzakete. Elkarteak 120 txerri-beso eta 500€ko bi erosketa-txeke banatu ditu eta irabazleek txartelarekin ordaintzeko momentuan jakingo dute saria lortu duten edo ez. Ekimena azaroan jarri zen martxan eta, 500€ txekeak jada banatu badira ere, txerri-besoak lortzeko aukera dago oraindik ere. Txerri-besoak banaketa abenduaren 22an burutuko da plazan, 20:15ean. Horrez gain, 500€ 5 erosketa txeke zozketatuko dira elkarteak dendetan erosten duten bezero guztien artean (ez da beharrezkoa 'Ermua txartela' izatea). Parte hartzaile guztiek beteko dituzten txarteltxoekin zozketa egingo da plazan, abenduaren 22an baina 21:30ean. Honez gain, Bizkaiko merkataritzaren aldeko 'Bono denda' kanpainan parte hartzen ari dira herriko 27 denda: oinetako eta arropa-dendak, janari-dendak eta altzari-dendak, besteak beste (EMOEaren Facebook-en irakurri daiteke zerrenda osoa). Parte hartu nahi duten bezeroek, BBKko orotarako kutxazainetara jo beharko dute, edozein kreditu/zor txartelarekin, eta 40€ko prezioa duen bonoa erosi. Bono horrekin 50€ko erosketa egin ahal izango da (hau da, 10€ko deskontua egingo da). Bizkaiko Foru Aldundia eta CECO-BI dira kanpaina honen bultzatzaileak eta guztira 15.000 bono ipini dituzte salgai. Horrek 2013ko urtarrilaren 5era arteko erosketetarako balio du eta parte hartzen duten dendek euren erakusleihoetan adierazita dute.



## XIX. Juanita Ibaibarriga literatur lehiaketaren sariak banatu dira

Aurtengo edizioan honako hauek jaso dute saria: Araitz Prieto, Sandra Bouzo, Irune Basagoiti, Sara Ruiz, Aitor Ojea, Maialen Asenjo eta Maddi Gorrotxategik. Horiek 40 euroko erosketa-txeke jaso dute. Nagusien kategorian, berriz, erreportajei dagokiona, hutsik geratu da. Sari banaketa Udal Liburutegian burutu zen abenduaren hasieran. (Argazkia: Ermuko Udala).



**Arinka**  
Ume eta gazteentzako zapata-denda...  
40ra arteko zkiak ditugu  
Orbe kardinalaren plaza 8, behea  
ERMUA - Bizkaia / 943 17 41 26

**SEHIGA**  
LAN-BABESA  
Goienkale kalea (Ermua)  
Tel: 943 172 454 / Fax: 943 033 821  
[sehiga.proteccionlaboral@gmail.com](mailto:sehiga.proteccionlaboral@gmail.com)

**URRETA** burdindenda  
\* Etxea \* Giltzak  
\* Tresneria \* Zerrailgintza  
\* Brikolaia \* Kit altzariak  
\* Rielak  
Zeharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA

**Kopi-Fax**  
FOTOKOPIAK  
KOLOREZKO FOTOKOPIAK  
HANDIPENAK - TXIKIPENAK  
PLANOAK - AZALEZTAPENAK  
FAX PUBLIKOA  
INPRIMAKETAK KAMISETATAN  
Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89



**Ermuacentrocomercial**

ERMUKO MERKATARI ETA OSTALARI ELKARTEA  
ASOCIACIÓN DE COMERCIANTES Y HOSTELEROS DE ERMUA

Hemen zeu  
zara gunea

*Zorionak*



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

INDUSTRIA, BERRIKUNTZA,  
MERKATARIETZA ETA TURISMO SAILA  
DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,  
INNOVACIÓN, COMERCIO Y TURISMO

## UDAL LIBURUTEGIA ITXITA EGONGO DA GABONETAKO JAIEGUNETAN

Abenduaren 24an, 25ean eta 31n eta urtarrilaren 1ean, 5ean eta 6an Udal liburutegia itxita egongo da. Gainontzeko egunetan ohiko ordutegia izango du: 9:30etik 20:30era.

## 15 LAGUNEK ERABILI ZUTEN EUSKARAREN ALDEKO MANIFESTAZIORAKO AUTOBUSA

‘Euskaraz bizi nahi dut’ lelopean manifestazioa deitu zuen Kontseiluak abenduaren hasieran. Euskal Birusa Euskara Elkartek eta Kaltxango AEK Euskaltegiak autobusa jarri zuten Ermutik eta 15 lagunek erabili zuten Donostiara joan eta etortzeko.

## MINBIZIAREN KONTRAKO ELKARTEAK MAHAI APAINGARRIEN LEHIAKETA ANTOLATU DU

Epaimahaiaren erabakia abenduaren 21ean ezagutuko da, 19:00etan, Lobianon, eta lehiaketara aurkeztutako lanak bertan egongo dira ikusgai 23ra arte.

## Euskaltegiek urtarrilerako matrikula zabaldu dute

Kaltxango AEK Euskaltegiak eta Udal Euskaltegiak 2013rako eskaintzak ezagutzera eman dituzte jada. AEK-k 60 orduko hobekuntza ikastaroa eskainiko du, astean bi egunetan eta iluntzean. Horrez gain, maila guztietarako eskolak emango dituzte (hasiera mailatik EGAraino) eta 1. eta 4. maila bitarteko Habe Tituluak prestatuko dituzte. Ikasleek txandaka aritzeko aukera izango dute (goizez eta arratsaldez) eta diru-laguntzak eskatu ahal izango dituzte. Interesa dutenek 943171940 telefonora deitu dezakete, kaltxango@aeak.org helbidera mezua bidali edo Kaltxangora joan (Bizkaia etorbidea 13), urtarrilaren 14a baino lehen. Udal Euskaltegiak, bestalde, hasiera mailatik HABEko 3. mailara bitarteko eskolak eskainiko ditu astelehenetik ostegunera bitartean, hainbat ordutegitan. Gainera, langabetuek eta lehen mailako ikasleek erdi prezioa ordainduko dute. Urtarrilean egingo da matrikulazioa eta informazioa eskatu nahi dutenek Teresa Murga eraikinerara jo beharko dute (Goienkale z/g, 2. solairua), 943170925 telefonora deitu edo euskaltegia@udalermua.net helbidera mezua bidali.

## Txabi Arnalen ‘Cuore di Sarto’ liburuak saria jaso du

‘El corazón del sastre’ liburuaren italiarako bertsiok saria jaso du Lonbardian, Vittoria Samarelli saria hain zuzen ere. Sari horrek “ezagutu, sortu eta hazteko helburuarekin jaiotako liburuen kalitatea aitortzen du”. Sari banaketa abenduaren hasieran burutu zen, Lonbardiako Mantova probintziako Castillo Goffredon.



## Negozio aukeren berri emateko iragarki-taula sortu du Debegesak

Debegesak espazio berri bat sortu du bere webgunean, www.debegesa.com atarian, informazioa zabaldu eta partekatze helburuarekin. Iragarki-taula birtual bat da eta ekin-tzaileei eta enpresei zuzendutako informazioa jasoko du, hala nola, negozio aukerak eta eskualdean dauden enpresa-inkubagailuei buruzko informazio orokorra. Debabarrenean enpresa-jardueren garapena bultzatzea bilatzen du ekimenak. Bestalde, Jasangarritasunerako Udalerriean Euskal Sareak, ‘Udalsarea 21’ek, saria eman dio Debegesaren ‘Deba ibaia bizigura’ proiektuari (3.000 euro). Proiektu horri esker, Berano inguruan ibaiaren garbiketa egin zen, besteak beste.



**MUSIKA  
ESKOLA**

- Akordeoia
- Biolina
- Biolontxelo
- Bonbardino
- Flauta
- Kantua
- Gitarra
- Gitarra elektrikoa
- Gitarra baxua
- Lengoia musikala
- Klarineta
- Panderoa
- Perkusioa
- Pianoa
- Saxofoia
- Trikitrixa
- Tronboia
- Tronpet
- Txistua

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com

**Komunitateak**

# San Pelayo

**Aholkularitza  
juridikoa**

Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04  
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua



**URDAITEGIA - CHARCUTERIA  
MATE**

Plaza del Mercado  
Tel. 17 24 12  
**ERMUA**

## Proba-Leku

Neopaindegia - Estetika



**Probaleku 3, 1A  
Tel. 943 17 05 42**

# T

**XALAPARTA  
ABERNA**

**Eta asteburuetan  
pintxoak, afariak  
eta bokatak!**

**Erdikokale 13  
(Ermua)**

**ENKARGYAK  
943 030 299**



**NEREA IÑIGUEZ  
HORTZ KLINIKA**



San Inazio 4 - Ermua  
943 030 512 / niklinika@gmail.com

# Libe Garitagoitiak eta Leire Tejadak Ikastolako argazki lehiaketa irabazi dute

**Anaitasuna Ikastolak argazki-lehiaketa antolatu zuen San Martin azoka egunean. Lehen Hezkuntzako 3. zikloko umeei zuzenduta zegoen, 10 eta 12 urte bitarteko umeei alegia. Guztira 45 argazki aurkeztu ziren.**

**I**kastolak antolatutako lehiaketa honetan 3 kategoria zeuden: azoka bere osotasunean, txerria eta baserritarren postuak, eta Libe Garitagoitiak eta Leire Tejadak ateratako argazkiek lortu dute saria.

Libek 11 urte ditu eta lehen bi kategoriatan irabazi du. *“Nire ahizpak eta lagun batek lagundu ninduten, baina hasieratik argi nuen zer atera nahi nuen”*. Leirek 10 urte ditu eta baserritarren postuen kategorian irabazi du: *“Ni lagun batekin joan nintzen eta irabazteko esperantza banuen, ateratako argazkia asko gustatu zitzaidalako”*.



Libek, aldiz, ez zuen irabaztea espero, jende gehiagok parte hartuko zuela uste baitzuen. *“45 argazki jaso ditugu eta kopuru polita den arren, kontuan izan behar da lehen urtea dela”*, dio Ikastolako Hizkuntza Normalkuntza Proiektuko Teknikaria den Koldo Aranberria irakasleak. Abenduaren hasieran, Euskararen Nazioarteko Egunaren inguruan jaialdia egin zuen Ikastolak areto nagusian eta Libek eta Leirek euren sariak jaso zituzten ikasle guztien aurrean. Gainera Ikastolako sarreran ere euren argazkiak ikus daitezke handi-handiak. *“Saria kartulinazko domina da eta balio handikoa ez bada ere, txalo zaparrada eta guztion onespina jaso dute irabazleek. Horrez gain, beste saritxoren bat eman-go diegu aurrerago”*, dio Aranberriak.

## Esparruak eta euskara

Lehiaketa honek helburu bikoitza du. Alde batetik, San Martin azokako esparru ezberdinetan arreta jartzera behartzen ditu gazteak: zer dagoen, postuak zein motatakoak diren, nola antolatuta dauden... Beste alde ba-



retik, euskararen erabilera areagotzeko xedea du.

Parte hartzaileek diotenez, lehiaketak helburu biak lortu ditu: *“Aurreko urteetan, animaliak ikusi eta San Martin plazako jokoetan ibiltzen ginen eta aurten plazan ibili behar izan gara, postuetan arreta ipiniz. Eta bestalde euskara ere erabili dugu”*, azpimarratu dute.

Horrez gain, ikasleek perspektiba landu dute eta euren lanekin kritiko izaten ikasi behar izan dute: bakoitzak ateratako argazkiak ikuskatu, hausnarketa egin, etxekoekin eztabaidatu eta onenak aukeratu behar izan dituztelako.

Epaimahaia irakasle eta ikasle taldeak osatu du eta bakoitzak *“bere irizpidea-*

*ren arabera baloratu ditu argazkiak. Gaiaren egokitasuna, argitasuna, perspektiba, edertasuna, konposizioa...”*. Gehiengoz erabaki dutela argi utzi dute, argazkia norena zen jakin barik.

Datorren urtean lehiaketaren 2. edizioa egiteko asmoa du Ikastolak, eta antolatzaileek adin tartea handituko duten baloratu beharko dute. *“10 urtetik beherakoak txikiegiak dira honetan parte hartzeko baina nagusiei gonbitea egitea pentsatuko dugu”*, dio Koldok. Adin kontuak direla eta, Libek ezin izango du datorren urtean parte hartu eta pena handia ematen dio, bere esanetan *“guai delako!”*.

Dorleta Vidal

**Pub Dakota**



Probaleku, z/g  
Ermua (Bizkaia)  
dakotaermua@hotmail.com

ELEKTRAGAILUENTZAKO ZERBITZU TEKNIKOAK

**EGANA**

ALDAGAILUAK

GARBIGAILUAK - SUKALDEAK - HOZKAILUAK  
LEHORGAILUAK ETA BEROGAILU ELEKTRIKOAK

DIPUTAZIOA 7 # TLF. 943 17 66 08 # ERMUA  
BIDEBARRIETA 33 # TLF. 943 70 28 33 # EIBAR

# NEREA GOENAGA

- **Umetako oroitzapena?**  
Oso garai zorionsuak izan ziren. Gurasoek 'Bar Mundial' zelakoa zeukaten eta jende nagusiz inguratuta hazi nintzela esan nezake.
- **Ikasketarik...**  
Eibarko Unibertsitatean batxilergo ikasketak egiten hasi nintzen, baina lehen urtean utzi nuen.
- **Lanean noiz hasi zinen?**  
Ikasketak utzi ostean. Gurasoen tabernan hasi nintzen. Beti izan dut gustuko jende-aurrean lan egitea.
- **Orain loteria eta apustu denda daramazu...**  
Orain dela 13 urte ireki genuen. Ordutegia da okerreana, baina nire lanarekin oso pozik nago.
- **Nolakoa da Ermuko bezeroa?**  
Leiala eta gustagarria.
- **Banatu dituzun sari handienak?**  
Orain dela 17 urte, nire gurasoen tabernan 30 miloi pezetako bono-loto sari bat eman genuen eta orain dela 7 urte, 60.000 euroko beste bat Euromillon sariketan.
- **Zortean sinesten duzu?**  
Bai, dudarik gabe. Beti amesten dut egunen batean sariren bat tokatuko zaidala.
- **Lanetik kanpo, zer egiten duzu?**  
2 urte eta erdiko alaba daukat. Horixe da nire hobbia.



**Eibarren jaio eta 5 urte zituela Ermura etorri zen. Geroztik hemen bizi da. 3 neba-arreben artean gazteena da. Alaba baten ama. Etxeko negozioa izan du beti ogibide eta azken urteotan Goenaga loteria eta apustu denda egiten du lana. Bizi ditugun krisi garai hauetarako ezinbesteko baikortasuna eta alaitasuna transmititzen duen pertsona.**

- **Eguneko zure momentua?**  
Gaua. Etxean nagoenean, lasai. Alabatxoarekin eta senarrarekin batera.
- **Defekturen bat?**  
Ez naizela oso puntuala nahiz eta azkenaldian asko hobetu dudana.
- **Zerk kentzen dizu loa?**  
Krisiak. Egunerokoan asko nabaritzen da. Jen-
- deak apustuak egiten segitzen duen arren, jaitsiera nabari dugu ere eta hemen ezin da jakin nola amaituko dugun.
- **Jaiki ostein egiten duzun lehen gauza...**  
Laranja zukua hartu.
- **Jateko platera...**  
Xerra, patata eta arrautzarekin.

- **Zinea...**  
Asko gustatzen zait. Iku-si dudan azken filma 'Lo imposible' izan da. Aktore gisa Angelina Jolie dut gustuko.
- **Bidaia bat?**  
Mexiko asko gustatu zitzaidan. Israel edo Egiptora joango nintzateke gustura, nahiz eta orain ez den horren erreza.
- **Egin gabe daukazun hori...**  
Sukaldaritzako ikastaroren bat.
- **Gabonak badatoz...**  
Une politak dira niretzako. Etxeko denak gaude, umeak, lehengusuak, elkarrekin egoteko momentu politak dira.
- **Txoko bat...**  
Garai batean mendira sarri joaten nintzen eta Urbia asko maite dut.
- **Bizitzak zer irakatsi dizu?**  
Pertsonok onak eta leialak izan behar gara.
- **Zer jartzen zaitu sutan...**  
Gezurak eta injustiziak.
- **Genero berdintasunaz zer diozue...**  
"Gizonek beraien emazteak hiltzen jarraitzen dute..." hori entzutean oilo ipurditan jartzen zait azala. Horiek entzuten diren berriak dira, baina entzuten ez ditugunak...

Asier Ibaibarriaga



**CITROËN**  
**AUTOS AMEDI**  
Zearreko buelta eraikina 3, L8 pab.  
Tel. eta Faxe. 943 17 04 14

Drogeteniturri, 207 zkoa.

Zure publizitatea...

**drogeteniturri**  
aldizkarian

943179350  
688 632876  
Erdikokale 2, 1  
drogeten@gmail.com



**D. ARRAL 97 S.L.**  
Tfno. 943 176 075 - Fax: 943 170 892  
arral@arral97.com  
www.arral97.com

**Ardo banatzailea:**  
Luis Cañas  
Cantosán Verdejo  
Viña 65 Verdejo  
Amaren  
Añada Real  
Cava Oriol Rosell  
Nitida  
Montepinos



## Jose Barquero 'Pitu', Ermuko Futbol Eskolaren sortzailea: "Partiduetan umeei oihu egiten jarraitzen dute gurasoek"

Jose Barquerok 13 urteko esperientzia dauka futbol profesionalean, 2.B mailan, eta beste 4-5 urtekoa 3. mailan. Estatu osoko 16 taldetan jokatu ostean, Futbol Eskola sortu du herrian 35 urteko ermuar honek. Irailean jarri zen martxan eta gaur egun 59 mutiko eta neskatila aritzen dira, 4 eta 11 urte bitartekoak guztiak.

**- Urtebete igaro da futbola utzi zenuenetik eta Futbol Eskola martxan duzu jada. Hain erraza da horrelako proiektua abiatzea?**

Ez, nik aspaldidanik nuen proiektua buruan eta hasi aurretik pausu asko eman behar izan ditut. Hasteko, eskolan futboleko jokatzeko zuten umeen jokabidea aztertu nuen. Ni joan nintzanetik futbolaren bilakaera ikusi nahi nuen. Eta egoera kaskarragoan dagoela ikusi nuen.

**- Zein zentzutan?**

Oraindik ere gurasoak ez dira konturatzen hain ume gazteentzako lehiaketak ez direla onuragarriak. Nagusien taldeetan dabilten jokalariek jarrera berdina dituzte eta astean 2 edo 3 egunetan entrenatzen dute. Hurrengo partida prestatu baino ez dute egiten, entrenamendu horiek umeentzako egokiak diren jakin barik.

**- Gurasoek larregi eskatzen diete umeei?**

Partiduetan gurasoek umeei oihukatzen jarraitzen dute eta irainak eta berba zatarrak entzuten dira etengabe. Ume askok negar egiten dute galtzen dutenean

edo jokatzeko ez dutenean... Ez zait batere ondo iruditzen. Adin horrekin umeei disfrutatu behar dute, galdu edo irabazi, jokatu eta ondo pasa behar dute.

**- Eta zer ikasten dute Eskola honetan?**

4 eta 8 urte bitarteko umeei entrenatu egiten dute bakarrik. Psikomotritizitatea lantzen dugu, kirol-baloiak transmititzen saiatzen gara (talde izaera, esaterako) eta, luzaketak egiten dituzten bitartean, gorputzaren muskuluak zeintzuk diren azaltzen joaten gara apurka-apurka. Teknika oso gutxi lantzen dugu ume hauekin, batzuek baloiari ostikada emateko zailtasunak dituzte-eta!

**- Eta nagusiak?**

8 urtetik gorakoekin bideratutako kontrolak lantzen ditugu, teknikoki futbol zelainon kokatu erakusten diegu... Horiek lehiatu egiten dute, baina ez diogu emaitzari larregi erreparatzen. Umeek ikasitakoa praktikan ipintzen ari diren baloratzen dugu.

**- Laguntzarik jaso duzu hau guztia gauzatzeko?**



Atlético de Madrideko kirol-zuzendaria laguna dut, nire taldekide izan zelako, eta berak azaldu zizkidan eman beharreko pausuak, momentu batzuetan etsipena sentitu bainuen.

**- Traba asko izan dituzu bidean?**

Udalak hasieran ezezkoa eman zidan, gurasoek ez zutelako ordainduko umeak futboleko aritzeko, eskolatan jokatu zezaketelako, baina guk beste gauza batzuk eskaintzen dizkiegu bai ume zein gurasoei.

**- Esaterako?**

Banakako kontrola egiten diegu umeei eta hiru hilean behin bilera daukagu gura-

soekin. Umearen bilakaera azaltzen diegu, indarra, teknika eta abiadura neurtzeko grafikoekin, esaterako.

**- Eskertzekoak ere egoten dira horrelakoetan...**

Bai, hasieran nigan konfiantza jarri zuten gurasoei asko zor diet eta baita ni laguntzen egoten diren 5 laguneri ere. Herriko merkatari batzuk ere euren laguntza eskaini didate. Alde txarrak ere badaude: instalazioak nik ordaindu behar ditut eta umeei UKEko bazkide izan behar dute. Baina orokorrean, pozez zorutzen nago eta etorkizunean eskola nire lana izatea nahiko nuke.

Dorleta Vidal

**Pub SCORPIO**



Zubiaurre, 21  
ERMUA

**PUB YOMY**



**Zubiaurre  
kalearen  
bihotzean**

## Etxegabetzeak: Arduragabetasuna edo iruzurra?

Hemen etxea ezin bada ordaindu, bueltatu eta bankuari ordaintzen jarraitu behar zaio. Zein herrialdetan gertatzen dira horrelakoak? Gainera, nola uler daiteke banku hori Gobernuak erreskatztea? Horrelakoak hemen bakarrik gertatzen dira.

Bankuek askatasun osoarekin jokatu izan dutelako heldu gara egoera honetara, kontrol publikoek ez dute funtzionatu. Hipoteka-kredituak lortzeko baldintzak neurritz kanpokoak dira eta botere publikoek ez dituzte geldiarazi.

Zenbaterainoko erantzukizuna dugu herritarrok? Askok eta gutxi. Kreditu errezetan murgildu gara, etxebizitza erosteko bide bakarra baitzen. Etxea erostera behartzen gaitu sistema honek, eta ez alokatzera. Alokatzera dirua botatzea dela esan eta sinestarazi digute, ia diru kopuru bera ordaintzen delako, baina pisua ez delako sekula gurea izango.

Pisuak eraikitzen dituenari pisu horiek saltzea komeni zaio, jakina, eta bankuei kredituak ematea interesatzen zaie. Ondorioz, ez da alokairua bultzatzen, enpresa handiek ez dituztelako irabaziak lortzen.

Horren ondorioa da egungo krisi eta langabezia, familia asko zorpetuta daude, euren ordainketei aurre egin ezinik eta desjabetzearen zain.

Oraingoan ere gizarteak aurrea hartu die gobernatzeko dutenei eta etxegabetzeen kontra mobilizatzen hasi dira herritarrak. Azken hilabeteotan, Legegintzako Herri Ekimenaren alde sinadurak jaso dira, egungo arautegia aldatu dezaten. Ekimen horrek etxea ordainean ematea proposatzen du, etxegabetzeak gelditzea eta alokairu soziala.

Hau da, gobernuari zentzu komuna erabiltzea eskatzen zaio, eta etxegabetze arriskuan dauden eskubideei lehentasuna ematea bankuen etekinen gainetik.



Ana Gómez

Duela gutxi Espainiako gobernuak gutxiengoarengan eragina duten neurri urgenceak onartu ditu. Neurri horiek ez dute zorren arazoa jorratzen eta egungo egoera okertu egin dezakete. Non dago arazo hori bere osotasunean konpontzeko nahi politikoa?

Momentu honetan herri mobilizazioak garrantzitsuak dira. Gero eta gehiago dira gai honetan lanean diharduten taldeak: ez dugu kaltetutako pertsonen berba egiten dagoeneko, kaltetutako bizilagunak baizik. Etiketa politikoak alde batera utzita, herri korporazioek babes eman behar diete arazoari irtenbidea eman nahi dieten ekimenei eta bere gain hartu horien lidergoa.

“ **Non dago arazoa bere osotasunean konpontzeko nahi politikoa?** ”

**TXINDURRI  
TALDEA  
Tokian  
tokiko**

**Enter**  
INFORMÁTICA

SALMENTAK / IRAKASKUNTZA / ZERBITZU TEKNIKOA

VI Centenario 19, behea  
Tel. 943 17 90 37  
e-maila: enter-i@arrakis.es



**Harategia**

**M. LAZKANO**

**BERTOKO OKELAK**  
*Geure Baserrian*  
*Hazitako Txalak*

GEUK GIZENDUTAKO  
ABELTZANTZA

Merkatua, 36-37 zbk.k  
Tfnoa. 943 17 05 84

**Ermua**

**ZUTIK**  
garagardotegia

**Ogitartekoak,  
hanburgesak,  
plater konbinatuak,  
kaxolak....  
konpainiarik onenean!!**

Zubiaurre 21 - arkupeetan  
ERMUA · 94317 39 78

**ETXERA  
eramateko  
616 80 22 81**

**LANA**

Rock talderako abeslaria behar da.  
© 695714749

-----  
Drogeteniturri aldizkariak banatzaile bat behar du. Bi eguneko lan ordaindua eskaintzen da. Baldintzak: pertsona arduratsua eta euskalduna.  
© 943179350 / 688632876  
✉ drogeten@gmail.com



Abenduaren 12an  
Zorionak Uxue zure 5. urtebetetzean neba-arreben partez.



Abenduaren 4an  
Zorionak Ane printzesa zure 6. urtebetetzean. Musu handi bat etxeko guztion partez. Muuuuaak!



Abenduaren 2an  
Zorionak Maier familia osoaren partez. Gure txikitxuak bere lehenengo urtea betetzen du!



Abenduaren 21ean  
Zorionak Tio, jarraitu hain jatorra izaten eta musu handi bat etxekoaren partez.



Abenduaren 19an  
Zorionak eta ondo pasa zure egunean. Musu handi bat etxeko guztien partez.



Abenduaren 30ean  
Zorionak Nerea zure 2. urtebetetzean. Muxu handi bat zure familiaren partez.



Abenduaren 8an  
Ongi-etorri Isabel eta zorionak Ana eta Alf!

Hurrengo zenbakirako azken eguna:  
**URTARRILAREN 16a**



Abenduaren 30ean  
Zorionak Endika, 2 urte!!! Jarraitu horrela txapeldun!! Muxu handi bat familiaren partez!!



Abenduaren 30ean  
Zorionak Aimar zure 6. urtebetetzean. Musu handi handi bat Maitane, aita eta amaren partez!



Abenduaren 3an  
Zorionak Markel. Muxu asko etxekoaren partez.

**OUTUMURO**  
Kafetegia  
Kafe eta tarta bereziak  
Aukera handia **TE** eta **INFUSIOETAN**  
Astelehenetik ostiralera 9etan zabaltzen dugu

**OINAK**  
**LEIRE MAYORA**  
**PODOLOGOA**  
Erdikokale 1, 1. A  
48260 Ernua  
© 943 17 47 44

**PRO**  
  
-ARRAINDEGIA  
-ITSASKIAK  
-ARRAIN FRESKOAK ETA IZOZTUAK  
**ESKAINITZA BEREZIA OSTIRALERO**  
Zubiaurre, 21 baxua  
Tfnoa. 17 16 96 (despatxua)  
" 17 24 33 (etxea)  
Merkatu Plaza, Tfnoa. 17 41 59  
ERMUA

hamburguesería  
**TITANIK**  
  
*Pintxo dastaketa poteoan*  
Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83

**MALLABIA  
1933**

Argazki hau 1933ko uztailaren 20an aterata dago Trabaku beheko taberna aurrean. Bertan agertzen dira Idarraza ahizpen familiak. Juan Angel Aranburu, Facunda Aranburu, Hipolito Totorikaguena, Primo Aranburu, Isabel Gorrotxategi, Marcelo Mugarza, Maria Gorrotxategi, Jose Luis Mugarza, Feliz Zabala, Hilaria Zabala, Julian Gorrotxategi, Emilia Aranburu, Juan Gorrotxategi, Benita Idarraza, Eusebia Zabala, Juana Idarraza, Enrique Mugarza, Rufina Gorrotxategi, Hilaria Idarraza, Bitoriano Gorrotxategi, Felipa Aranburu, Josefa Idarraza, Milagros Totorikaguena, Leandro Totorikaguena, Tomasa Idarraza, Julia Totorikaguena, Rosario Aranbuera eta Jesus Gorrotxategi.

**ERMUA  
1948**

Eibarren idatzitako aeroplanoaren bertsoen harira *"Nueva York-era guaz lehenengo runbuan..."* ermuar andra taldetxo hau ere bertaratu zen, argazkia ateratzeko ez bazen ere. Ezkerretik eskumarantz jarrita: Miren Orbe, Matilde Pradera, Rosario Izagirre, Maria Gallastegi, Benita Ormaetxea, Maria Bengoetxea, Antonia Izagirre, Juanita Solozabal eta M<sup>a</sup> Socorro Aranburu. Kantuzaleak, umorekoak, ez ziren bazkalostean aspertuko eta izenak esan zizkigun gizonaren esanetan *"andra balientiak ziran, gogorrak, ez ziran agorrian itzulduko, ez ziran galduko, ez!"*.

**Infreñu  
Taberna** Kardenal Orbe plaza  
943 174584  
[www.infretaberna.com](http://www.infretaberna.com)



**solozabal  
tabakoak**

torrekua 1  
tel./fax: 943 17 07 33



**Ermuarren %30ek erabiliko dituzte biohondakinak jasotzeko edukiontzi marroiak, hau da, 1.838 familiek Udalaren datuen arabera. Etxean zaborraren bereizketa egin eta gero, giltza hartu, poltsa konpostagarria edukiontzian utzi eta konposta egingo du Tolosako Artelatz enpresak.**

**Kontainer marroiak erabiltzeko izena eman duzu?**

**Badakizu zer egiten den jasotzen diren hondakin horiekin?**

**Idea ona iruditzen zaizu?**

Ez dut edukiontzi marroiak erabiltzeko izenik eman, ez ditudalako behar. Egia esan, ez dakit zer egiten den jasotakoarekin. Idea ona iruditzen zait noski.



**Ane Redondo , 19 urte**



Ez dut izenik eman denbora faltagatik, baina, portaletan izena emateko paperak ikusi ditut. Ez dakit zer egiten den jasotako hondakinekin, ikastoletan informazioa zabaldu beharko litzateke, umeek ere birziklatzeko aukera izan dezaten. Ondo deritzot birziklapena sustatzeari.

**Ianire Daaira, 21 urte**



Ez dut izenik eman, momentuz kontainer marroiak erabiltzeko uzkurra naizelako. Jasotako hondakinekin konposta egiten dutelakoan nago. Idea ona den arren, halako edukiontzi bat zabaltzean usain txarra dago.

**Iñaki Zuloaga , 41 urte**

Bai, goizetik gauera sortzen ditugun hondakin gehienak organikoak direlako, eta horiek aprobetxatzea oso ondo dago. Jasotako hondakinekin konposta egiten da. Oso ideia ona dela iruditzen zait, gainera, norberak nahi duenean giltza hartu eta birziklatu dezake.



**Begoña Aguirregomez, 52 urte**

Ez dut izenik eman, baina, nire gurasoek eta amamak eman dute birziklatzea interesatzen zaielako. Bildutako hondakinekin zer egiten den ez dakit. Birziklatzea ondo dago gauza asko errekuperatu daitezkeelako.



**Jon Uriarte, 20 urte**



Bai, kontenedore marroiak erabiltzeko izena eman dugu, etxean erraustegien kontrakoak garelako. Jasotako hondakinekin konposta egiten da. Bai, ondo iruditzen zait.

**Aitor Gorosabel, 42 urte**

Leire Elustondo eta Izara Rivas

**akerlei**  
HEZIKETA-ZENTROA



Bizkaia etorbidea 5  
48260 - Ermua  
943 17 66 32  
akerlei@akerlei.com

**LAGUNTZA ESKOLAK INGELESA, FRANTSESA ETA ALEMANA**

...  
**BERRIKUNTZAK:**

- Ingeles eta frantseseko eskolak 4-5 urteko umeentzat
- Urtariletik aurrera, helduentzako speaking ikastaroa



**Bar London**  
Komentukua 2, Ermua  
Tif: 943173312

**ZINEA**

*Hilaren 5tik 7ra.*  
*Hilaren 12tik 14ra.*  
*Hilaren 19tik 21era.*  
*Hilaren 26tik 28ra.*  
 Zehaztu gabeko filmeak.  
 Hainbat ordutegi.  
 Ermua Antzokian.

**UMEENTZAKO ZINEA**

*Hilak 6.*  
*Hilak 13.*  
*Hilak 20.*  
*Hilak 27.*  
 Zehaztu gabeko filmeak.  
 17:00etan.  
 Ermua Antzokian.

**ZINE-KLUBA**

*Hilak 3.*  
*Hilak 10.*  
*Hilak 17.*  
*Hilak 24.*  
*Hilak 31.*  
 Zehaztu gabeko filmeak.  
 20:30ean.  
 Ermua Antzokian.

**MUSIKA**

**Hilak 4:**  
 Kontzertua: Mariem Hassan. 19:00etan.  
 Antzokian. Sarrera: 5€



**Hilak 11:**  
 Opera bideo emanaldia: Verdi-ren 'La traviata', Londreseko Royal Opera House-tik. 22:15ean. Ermua Antzokian. Sarrera: 8€

**Hilak 19:**  
 Blues kontzertua: Luna Cohen. 20:00etan. Lobianon. Sarrera: 8€



**Hilak 25:**  
 Kontzertua: Corizonas. 22:15ean. Ermua Antzokian. Sarrera: 12€

**ANTZERKIA**

**Hilak 18:**  
 'Para lo que hay que vivir... mejor no morirse nunca', Gorka Otxoa eta Carla Hildagorekin. 22:15ean. Ermua Antzokian. Sarrera: 12€



**ERAKUSKETAK**

**7rtik 20ra:**  
 Margoak: Udane Juaristi eta Laia Bedós Bonaterra.

**21etik 3ra:**  
 Argazkiak: Xabier Ziarsolo. 18:00etatik 20:00etara. Lobiano Kultur Gunean.

**UMEENTZAKO EKITALDIAK**

**4ra arte:**  
 Gabonetako Haur Parkea: puzgarriak, ludoteka, ohe elastikoak, bideo konsolak, jolasak, tailerrak... 11.00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara. Hilaren 1ean itxita egongo da.

**Hilak 5:**  
 Errege Magoen Kabalgata. 18:00etatik.

**Hilak 26:**  
 Haurrentzako antzerkia: 'Printze zoriontsua', La baldufa-ren eskutik. 17:00ean. Ermua Antzokian. Sarrera: 4€



**BESTELAKOAK**

**Hilak 27:**  
 Extremadurako txarri boda. 10:00etatik. Extremadurako Zentruan.

Patxi López

**OKINDEGIA GOZOTEGIA**

**San Antonio**

Izelaieta, 40 Tel. 17 00 63  
 Zubiaurre, 12 Tel. 17 38 40

**AIZ**

**AIZ**

Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

**ZABAL**

**ERMUA**

**IKASTOLA**

1968tik Ermua euskalduntzen

# GREMIOEN

# GIDA

**DEKORAZIOA**  
OHREN KOORDINAZIOA • MARIAN CARRACEDO DEKORATZAILERA  
dekorazio estudioa  
**trastévere**  
barruko dekorazioa  
san pelaio, 26 ermua  
tel/faxa. 943 17 90 89  
trastevere@wanadoo.es

**ITURGINTZA**  
FONTANERIA  
**B. DE DIOS**  
Baimendutako instalatzaileak  
iturgintza, gasa, kalefakzioa eta  
petrolio produktua  
Gipuzkoa etorb., 48 - behea Komunetako altzariak  
eta osagarriak  
Tel/Fax. 943 17 01 09  
E-maila: bdedios@euskalnet.net

**ELEKTRIZITATEA**  
**BETA**  
ARGIZTAPENA  
ELEKTRIZITATEA  
• Proiektuak • Kalefakzioa  
• Instalazioak • Gaueko tarifa  
• Erreformak • Erradiadore elektrikoak  
Diputazio, 13 943 17 65 25  
689 23 31 71

**ERROTULAZIOA**  
**ROTEK**  
rótulos  
• Argi errotuloak • Irudi korporatiboa  
• Autoendako errotuloak • Neoia  
• Barne errotulazioa • Inpresio digitala formato handian  
Goitondo behekoa industrialdea  
C-1 partzela, 5 behea (Mallabia)  
eta Faxa: 943 17 00 36 • rotek@telefonica.net



**PINTURAK**  
**J. LUCAS**  
PINTURA EN GENERAL  
630 22 51 36

**PERTSIANAK**  
TOLDOS Y PERSIANAS **ORBE**  
• MUNTAIA ETA KONPONKETA  
• MOTORIZAZIOA  
• PERTSIANA DEKORATIBOAK  
• PERTSIANA BILGARRIAK  
• SEGURTASUN PERTSIANAK.  
TAILERRA:  
Zearreko buelta 2  
943 17 66 34  
630 01 13 41  
ERAKUSKETA: Karabixa, 1  
Tel. 943 17 98 60

**ARROZTEGIA**  
**Iraner**  
Puertas EDER Carpinteria  
• Ateak, horma-armairuak, tarimak...  
• Burdindegiko artikulua salgai  
• Giltzen kopiak, ebanisteria  
• Gremioen koordinazioa  
Bizkaia etorbidea 10, behea Ermua. Tel. 943174925 iranercb@gmail.com

**ITURGINTZA**  
ITURGINTZA, GAS ETA KALEFAKZIOA  
**LUIS VALLE**  
Bainugelen erakusketa  
943 17 15 56  
Tailerra  
943 17 23 56  
Goienkale z/g

**Gremioen Gidan  
publizitatea jarri nahi baduzu...  
Deitu**

**943 17 93 50**

edo **688 63 28 76**

# Gabonetako erosketa gida

optika  
**ITZE**

Probaleku 7  
Ermua  
943 17 46 51

**etxedreams**  
COLCHONERIAS

**%20 deskontua  
eta oparia  
jasoko duzu!**

**Zubiaurre 32  
(Ermua)  
943 177 041**

**F. PASCUAL** Arane, 6  
Tif.: 943 20 61 64  
Fax: 943 20 85 43  
20600 EIBAR  
(Guipúzcoa)

**VIRGINIA PASCUAL**

Zubiaurre, 36-38 (bajo)  
Tel y Fax: 943 17 68 28  
48260 ERMUA (Vizcaya)

**www.cocinaspascual.com**

Ferreteria **ANBOTO** Burdindegia

**Zorionak eta  
urte berri on!**

**BONO  
DENDA**

Zubiaurre 25  
943 17 69 76

**YONARI**  
bisuteria eta osagarriak

**Zorionak eta  
urte berri on  
gure bezero  
guztiei!!**

**Erdikokale 3, behea**

AUTOSERVICIO DE CALZADO **PABLO** OINETAKO AUTOZERBITZUA

**Sexto Centenario 19, ERMUA  
943 17 54 09**

**Quetzal**  
[arropa, bitxiak, opariak...]

Goienkale 9 · Ermua · 943170065  
Zuloagarren 7 · Eibar · 943531500

**Marfil**  
ILEPAINDEGI BAT BAINO GEHIAGO

Osasuna · Edertasuna · Estetika

Goienkale 12 behea - ERMUA · 943 17 28 09

**SAGARDUI**  
poltsak

Poltsak, karterak, gerrikoak,  
manikurak, maletak,  
osagarriak eta opariak.

**BONO  
DENDA**

943 170305  
sagardui@sagardui.com

Zubiaurre 29  
48260 Ermua (Bizkaia)

**Desenbretete**

- Teak eta kafeak.
- Belgiako txokolatea.
- Eguneko tea dastagarri
- Osagarriak: teontziak, katiluak, infusoreak.....

**Oparitzeko  
neurria  
egindako poltsak!**

Probaleku 4 bis, 943 03 15 81

**IZAGIRRE**

Calvin Klein  
Punto Blanco  
DIM  
Armani  
Playtex  
Wonderbra  
Freyja...

Komentukua kalea 2 48260 Ermua - Bizkaia **943 170 277**